

ASTEAZKENA

2019/10/02

7. urtea, 1.118. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

ITZEAURKIZU



EUSKARA HITZALDI SORTA

Galtzaundi euskara taldeak 'Euskaraz bizi ahal gara!' hitzaldi zikloa antolatu du, «herritarrak kontzientziatu eta euskara hutsean bizitzeko aukeran ahalduntzeko» helburuz; bihar izango da lehendabiziko hitzaldia 18:30etik aurrera, kultur etxean // 4

Agour enpresaren gaztandegi berria Lizartzan

Irunzubi industrigunean kokatu dute, eta «bertako ekonomia sustatu eta Tolosaldean enplegu jasagarria sortzea» izango du helburu // 6



«Guretzat oso baliagarria izan da, eta emakume askorentzat ere bai»

UXUE ALBERDI IDAZLEA

Plazida Otaño liburutegiko irakurle taldean izan da, 'Kontrako ezarririk' liburuaz hitz egiteko // 5

Dinamika onari eutsi eta ziklo berriari ekin asmo dute TAKEko talde nagusiek

TAKE saskibaloia klubeko gizonezkoen talde nagusiak larunbatean ekingo dio ligari, eta emakumezkoenak, berriz, urriaren 19ra arte itxarongo du lehen partida jokatzeko // 7

Anoetako Ergoien auzoan zikoina bat hilik agertu dela salatu dute

Eguzki talde ekologistaren arabera, «istripuak agerian uzten du goi-tentsioko kableek hegaztietan duten eragina»; salaketa jartzeko asmoa azaldu dute // 5



zozketak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



**DELTECO GIPUZKOA
BASKET - LEYMA
CORUÑA**

partida ikusteko

Urriak 06, 17:00etan,
Donostia Arena.

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

Urte berriarekin %0,83 igoko dira Tolosako udal tasak eta zergak

Hondakinen tasa salbuespena izango da, %5eko igoerarekin; udalbatzak larrialdi klimatiko egoera adierazi du, eta elkartasuna ere bai, uholdeek uztailean kaltetutako herri nafarrekiko

Itzea Urkizu Arsuaga

Agintaldiko lehen ikasturte hasiera izaten ari da Tolosako udalbatzarentzat, eta joan den ostegunean izan zen, abiarazte horretako lehen osoko bilkura. Udal tasek eta zergek hartu zuten hitzordua erdigunea eta, ohiko moduan, Hego Euskal Herriko KPIren arabera moldatuko dituzte tasak eta zergak 2020an ere, aho batez hala onartuta: %0,83ko igoerarekin.

Salbuespena hondakinen tasa izango da, %5eko igoera ezarriko baitio udalak, urte berriarekin batera. Udal gobernuak azaldu zuen, igoera hori beharrezkoa dela zerbitzuaren gastu eta diru-sarreraren arteko oreka bermatzeko. Bide horretan, EH Bilduko oposizioak adostasuna azaldu zuen hondakinen tasaren salbuespen izaerarekin, nahiz eta uste duten, udalak esfortzu bat egin beharko lukeela. Hala azaldu zuen Aitana Amondarain zinegotziak: «Karga fiskal hori herritarren jartzen da beti, eta ekintza-plan bat egokia litzateke, hondakinak eta gastu hori murrizte aldera».

Legeari erreferentzia eginez, Begoña Tolosa jeltzaleak azaldu zuen, «gastuak eta diru-sarrerak berdindu» egin behar direla, eta kontzientziazioaren bidetik jarraituko dutela, «orain arte bezala».

ETXE HUTSAK

ETA EGUZKI ENERGIJA

Plenoan tasa eta zergen igoera onartu baldin bazuten ere, hobari berri batzuk ere zehaztu ditu Tolo-



Aurrerantzean, ostegunetan izango dira ohiko osoko bilkurak. ITZEA URKIZU

sako Udalak, «egungo errealitateari ahalik eta modu egokienean erantzuteko».

Batetik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren errekar-guan salbuespen berriak izango dira 2020an, eta honako kasuetan ez dute etxebizitza hutsen errekar-gurik kobratuko: etxebizitza urtarilaren 1etik martxoaren 31ra bitarte saldu baldin bada; urtarilaren lehen etxebizitza hori obretan baldin badago, lizentziarekin; etxebizitzaren jabeak kanpoan bizita ere, elektrizitate eta gasaren gutxieneko gastua frogatzen baldin badute; eta, azkenik, mende-kotasun egoeran dauden pertsonen zaintzagatik, zaintzailearen edo zainduaren etxebizitza hutsik geratzen bada.

Bestalde, eguzki energia baliatzeke sistemak ezartzen dituzten obretan, Tolosako Udalak %95eko hobaria ezarriko dio Instalazio,

Eraikuntza eta Obren gaineko Zergari. Kasu horretan, EH Bilduk diru laguntza bat sortzea proposatu zuen, bestelako energia berriz-

Udaleko auto guztiak berritu nahi dituzte, ibilgailu elektriko edo hibridoak izan daitezen

tagarriak erabiltzen dituzten herritarrak ere saritu ahal izateko: «Foru araua jarraitu behar du udalak, baina aldundiari egin geniezaioke presioa, gainerako energia berriztagarriak ere saritzeko. Edo aurrekontuko diru-poltsa bat erabil liteke horretarako».

Horrela, proposamenari heldu eta berau bideratzeko asmoa azaldu zuen EAJko udal taldeak: «Helburuak zehaztu, eta denbora eskatzen duen lana da».

UDAL ANTOLAKUNTZA BERRIA HIZPIDE

Maiatzeko hauteskunde ondotik, EAJ-PSE udal gobernu berriak uda aurretik iragarri zuen udalaren antolaketa berria: Herritarrak, Antolakuntza eta Lurraldea sail nagusiek gidatuko dute udaletxe-

ko erritmoa, eta aldaketa horiei erantzuteko zenbait lanpostu aldaketa onartu zituzten plenoan.

Udalbarria antolakuntza sistema hizpide, Andu Martínez de Rituerto EH Bilduko zinegotziak azaldu zuen, agintaldiko lehen hilabeteotan «gela ilun batean» sentitu direla: «Lan dinamika eraginkorra dela irakurri dugu, eta ideia horrekin bat gatoz, baina guk ere horren parte izan nahi dugu, oposizioetik. Halaber, metodologia berria azkar ezartze horretan, uste dugu diagnosia falta izan dela».

Kritikari erantzunez, Joseba Ormazabal EAJko komunikazio eta gobernantza zinegotziak azaldu zuen, «gobernuan 4 urtez diagnosia egin» dutela aurrez: «Dinamika orain hasten da, baina lanean aurretik hasi ginen, Udate berri-tuz, adibidez. Lehen aldiz, udal honek agintaldi osorako plan bat izango du».

61.176 EUROKO KREDITU ALDAKETA

Udaleko gerakina baliatuz, iraileko osoko bilkuran kreditu aldaketa baten berri eman zuen udal gobernuak.

Guztira, 61.176 euroko kreditu aldaketa izango da, eta hainbat proiektu finantzatzeko ditu, modu horretara, udalak. Besteak beste: Udateko makina berria, 25.860 euro; helduen eskolako leiho berriak, 18.997 euro; Samaniego ikastetxeko mantentze lanak, 1.416 euro; kultur sustapenerako –Azken Mugako emanaldi be-

rezia, Udaberri dantza taldeko jantziak, Tolosako historiari buruzko komikia, erraldoi eta buruhandien Tafallako emanaldi berezia, eta Alberto Letamendiren eskulturaren ezustekoari aurre egitea–, 9.200 euro.

MOZIOAK ETA EZTABAIDA

Beste hainbat udalek egin bezala, Tolosakoak ere klima aldaketaren inguruko mozioa onartu zuen joan den ostegunean, testu berri bat adostuta. Bertan, nagusiki, larrialdi klimatiko egoera adierazi zuen udalbatzak, eta egoerari aurre egiteko «konpromiso irmoa» hartu, «zibilizazio erronka bat» dela nabarmenduz.

Joxemari Villanueva PSE-EEko zinegotziak, bere aldetik, erakunde publikoek klima aldaketaren aurka egindako lana azpimarratu nahi izan zuen: «Espainiako gobernu sozialistak landu du gaia, Jose Ignacio Asensiok 150 egitasmo abiarazi ditu klima aldaketaren aurka, eta udalak ere eman behar ditu pausoak. Herritarren inplikazioa lortu behar da».

EH Bildutik, Andu Martínez de Rituertok ikuspegi ezkorragoa plazaratu nahi izan zuen, «EAE-ren gehiegizko optimismoa» gaitzetsiz: «Errealitatea tematia da, eta larrialdi klimatikoa argia. Erabakiek irmoagoak izan behar dute eta, momentu honetan, euskal estrategiak ez daude Europar Batasunarekin lerrotuta».

Azkenik, Patxi Amantegik, gobernutik, agintaldirako aurreikusitako hiru neurri zehatz zerrendatu zituen: «Udaleko auto guztiak aldatuko ditugu, elektriko edo hibrido izan daitezen; hainbat udal eraikinetan eguzki-plakak jarriko ditugu, eta auto partikularrak kargatzeko zutabeak ere jarriko ditugu».

Azkenik, uztailean Nafarroako hainbat herritan uholdeek eragindako kalteen harira, udalak elkartasun mozioa onartu zuen, 2.000 euroko diru-laguntza emanez, eta herritarrak ere ekarpen ekonomikoak egitera bultzatuz; Tafalla, Erriberri, Puiu, Beire, Pitillas eta Leotzeko udalak kontu korronteak zabaltzeko horretarako.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en

Zortzi urtez zinegotzi izan ostean, herria alkaterik gabe ez geratzeko hartu zuen alkate izateko erabakia Orendaingo Migel Angel Arsuagak; Baliarraingo egungo alkatea, berriz, Josu Ozaita da, baina bederatzi hilabetez behin karguz aldatuko dute eta bost zinegotziak izango dira herriko alkate.

Eneritz Maiz Etxarri

«Herriarengatik» egin du ahalegina eta «garbi» hitz egin du Orendaingo alkatea den EH Bilduko Migel Angel Arsuagak.

Zergatik eman zenion baiezkoa alkate izateari?

Zinegotzi izan eta alkate izatea ez da nik nuen amets bat. Herriko arazoa ikusita pentsatu nuen pauso hori eman egin behar nuela. Oso gaizki ibili ginen zerrenda osatzeko. Gogoratu behar da, Iruerrietatik apartatu zela Orendain herri izateko, eta gure aurrekoek hori lortzeko zenbat lan egin zuten ikusita, eta momenturen batean berriro Tolosako auzo izatera pasa gintezkeela ikusita, talde bat elkartu eta saia-kera egiteko beharra ikusi genuen.

Behartua sentitu zara?

Bai, nahiz eta nik pentsatu nire zortzi urteak zinegotzi moduan beteta, nire lana egina nuela. Gauzak gaizki edo ondo egingo ditugu, baina behintzat, beti herriari begiratuta egin dugu.

Ezzaizula arrotza behintzat?

Bai, lehen ere dezente inplikatur nengoen udaletxeko kontuetan. Orain gehiago tokatzen zait gau-

«Elizarekin topatu gara, eta minduta gaude»

MIGEL ANGEL ARSUAGA OREDAINGO ALKATEA

Egoerak eraman du Arsuaga alkate izatera, eta «herriarengatik» lana egingo du; herritarren ekimen falta sumatzen du



E. MAIZ

zak entzutea; gustatzen ez direnak eta gustatzen direnak, gutxi. **Nolakoa da alkate izatea?** Laguntzen dit jendeak, baina era berean jendea gainean dago. **Zer duzue mahai gainean?**

Aurreko agintalditik datozen proiektu batzuk baditugu. Adibidez, Orendain-Abaltzisketa deitzen diogun bide berdea. Ibiurko urtegiaren bueltatik datorren di-rua da. Espainiar gobernuarekin

hitz eginga dago eta baiezkoa jasoa dugu, baina zain egon behar dugu. Bestetik, Eskolapioak ziren lekuko lurrak-eta udalak erosiak ditu, eta frontoi zaharra nahiko itxura txarrean dugu. Orendaingo herri kaskoari bukaera emateko proiektua egina dugu, baina nahiko potoloa da, eta fase batean egiteko guk ez daukagu ahalmenik. Txukunketa bi-hiru fase-tan egingo ote dugun gabilta.

Proiektu txikiagorik baduzue?

Bai, esaterako, urte askoan egin gabe duguna da; herrigunetik be-heko auzora eskailera falta dira, eta horri heldu nahi diogu. Herriko plazako kalea ere oinezkoentzako jarri nahi da.

Zein da udalaren egoera ekonomikoa?

Ekonomikoki ondo gaude, baina proiektuak egin ahal izateko bes-teen laguntza behar dugu. Guk ez daukagu ia diru sarrerarik.

Herria osasuntsu dago?

Bai, gazte jende asko dago, eta ume asko. Ekitaldiak egiten dira, eta nahiko ondo ikusten dut herria.

Nolako herritarrak dira orendaindarrak?

Parte hartzeko uste dut pixka bat bultzatzea egin behar zaiela. Beraien ekimenez ez da gauza asko ateratzen, baina zerbait egin behar bada eta udala hasten bada, animatzen dira eta parte hartzen dute.

Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Elizarekin topatu gara. Hainbat ekimen aurrera ateratzeko zenbaitetan toki gutxiarekin ikusten gara, eta herrian Erretoretxea hutsik dugu. Alokairuan hartzeko eskaintza bat egin genion elizari. Gotzaindegia erekin bilera egin, eta berak ondo ikusten bazuen ere, herriko batzordearena dela hitza esan zigun. Gure ezus-terako, herriko batzordeak erabilerak ukatu digu. Mina hartuta gaude, baina ez dugu etsiko.

Baliarrainen inork ez zuen alkate izan nahi, eta azkenean, lau urtean bost alkate izango dira.

Agintaldia hasi berritan gaude. Zer moduz?

Orain hasten ari gara; ilusioz eta gogotsu; pixkana ikasten ari gara.

Nolakoa da alkate izatea?

Nahiko ondo. Talde bat gara eta taldean gauzak errazago egiten dira, eta idazkariarekin elkarlanean, nik uste dut nahiko lan polita dela.

Bost zinegotzi zarete eta era berean, bost alkate izango zarete. Esplikatzetik bai?

Duela lau urte ez zen udal talderik osatu eta sei hilabetez udal gobernurik gabe egon ginen. Gero, talde bat osatu zen, eta lau urte pasata, berriz ere, arrisku bera zegoen. Zerbait egiteko beharra ikusten genuen batzuk, eta elkartu egin ginen, baina inork ez zuen alkatearen ardura hartu nahi. Bostok elkartu ginen, eta orduan erabaki genuen bostok izatea alkate eta pisu hori bosten artean banatzea.

Beraz, lau urte eta bost alkate.

Hori da. Bakoitzak 10 hilabete egingo ditugu alkate karguan, eta gero zinegotzi izaten jarraituko dugu.

«Auzolanari garrantzia ematen jarrai dezagula»

JOSU OZAITA BALIARRAINGO ALKATEA

Josu Ozaita, Jaione Olano, Juan Mari Iturrioz, Maribi Garmendia eta Andoni Olanok osatzen dute Auzolaneko Bizirik taldea.



Josu Ozaita, eskuinetik lehena, gainerako zinegotziekin. ENERITZ MAIZ

Lanak banatuta izango dituzue.

Bai, lau urte hauetan bakoitzak bere ardurak izango ditu; bere gustuko edo lanaren arabera gaien inguruko ardurak.

Gaur zer gai daukazue esku artean?

Udalera sartu bezain pronto herriko gazteek lokal bat eskatu zигuten. 12 eta 20 urte bitarteko-entzat izango litzateke gutxi go-

rabehera. Bilera pare baten ostean, adostu dugu eta erabaki dugu zein lokal utziko diegun. Guretzat garrantzitsua da. Herriaren geratzen dira, eta ez doaz beste herri batera beraien aisan. Eta era berean polita da, belaunaldi ezberdinak elkartuko direlako, eta eragile ere bilakatu daitezkeelako.

Beste gairik baduzue?

Ez. Aurkeztu ginenean herritarrekin nahi genuela gobernatu esan genuen, eta orduan, orain, udazkenean, parte hartze prozesu bat egingo dugu iritziz ezberdinak eta ideiak biltzeko. Hori jaso ostean egingo dugu herri programa hurrengo lau urteetarako.

Hala ere, bi puntu garrantzitsu baditugu. Bat, hirigintzan agortuta dagoen plan orokorrari heltzea izango da, eta bestea, kultur ekitaldiak antolatzea. Kulturak herri giroa sortu eta harremanak bultzatzen ditu, eta horri garrantzia eman nahi diogu.

Etxebizitzei heldu nahi diozue?

Aspaldiko urteetan trabatuta dagoen gaia da, eta landu egin nahi da. 140 biztanleko herria gara, eta 40 bat gazte ditugu. Horiek hemendik urte batzuetara agian hemen bizitzen jarraitu nahiko dute, eta oso geldo jotzen duten lanak dira eta pixkana lantzen hasi beharreko gaia da.

Nolakoak dira herritarrak.

Harremana oso gertukoa da. Auzolanerako kultura dago eta gauzak antolatzean lana egiteko ohitura sustraia dago. Eta zerbait antolatzen denean jendeak erantzun egiten du.

Zerbait eskatuko zenieke?

Horrela jarraitzeko auzolanari garrantzia ematen. Eta udalarekiko enpatia izateko, eta beraiek ere gure lekuan jartzeko. Horrela beste era batera ikusten dira gauzak.

Euskaraldiaren arrastoari segi, eta erabilera piztu nahi du Galtzaundik

‘Euskaraz bizi ahal gara!’ hitzaldi sorta antolatu du Galtzaundik, herriz herriz; bihar izango da lehena, Tolosako kultur etxean



Haritz Azurmendi eta Mikel Ozaita Galtzaundiko kideak, hitzaldien aurkezpenean. ITZEA URKIZU

Itzea Urkizu Arsuaga

Hamaika egunez euskaraz bizitzeko erronka jaso zuten, iaz, euskal herritarrek. Lehen Euskaraldiak bizipen eta hausnarketa berriak utzi zituen hiztunen artean, eta hainbat hilabeteko lanaren ondoren, datu zenbakidunak heldu dira hiztun horien esku artera. Galtzaundi euskara taldeak, horrela, Euskaraldiaren

arrastoa eta Tolosaldeko erabilera eta ezagutza datuak baliatu nahi ditu, eskualdean euskaraz bizitzea benetako aukera bat dela mahai gainean jarritz. Herriz herriko hitzaldi zikloa aurkeztu dute horretarako, *Euskaraz bizi ahal gara!* izenburupean, eta Tolosan izango da lehena, bihar bertan.

Egitasmoak jomugan du herri-tarrak kontzientziatzea, eta eus-

kara hutsean bizitzeko aukera horren bueltan ahalduntzea. Horrela, iaz Euskaraldiaren bueltan sortutako taldeak eta sareak baliatu nahi dituzte, hitzaldiok horri jarraipena emateko. Tolosako kasuan, Kike Amonarri Galtzaundiko lehendakaria eta Ane Izagirre Galtzaundiko kidea izango dira hizlariak; gainerako hitzorduetan ere, euskara taldearen bueltako hizlariak eskainiko dituzte azalpenak.

Besteak beste, egoera soziolinguistikaren errepasoa egingo dute, eta Euskaraldiko ondorioak eta datuak nabarmenduko dituzte ondoren, Haritz Azurmendi eta Mikel Ozaita Galtzaundiko kideek aurkezpen agerraldian azaldu zuten: «Euskal Herriko datuak ezagutzera eman dituzte, baina Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketak aukera eman digu Tolosaldeko erradiografia bat egiteko ere». Azkenik, erronkak hizpide izango dituzte saioetan: hurrengo Euskaraldiarenak, Tolosaldeko Euskararen Mahaiarenak eta Galtzaundi euskara taldearenak.

LANTOKIAK ERRONKA

Euskaraldia amaitu ondorengo hiru inkestak erantzun zituzten herritarrek osatu dute, Soziolinguistika Klusterraren ikerketa kuantitatiborako lagina: «Euskal Herrian, lehen inkesta 45.000 pertsona inguruk erantzun zuten, eta hiru galdetegiak 18.000 inguruk; azken horiek bakarrik dira balekoak». Tolosaldean fokua jarrita, berriz, 900 inkesta inguruko lagina izan dute, iazko

ariketaren eragina neurtu eta ondorioak ateratzeko.

Datuk batzuk nabarmentzearen, aipatzekoa da, euskararen erabilera bi puntu igo zela Tolosaldean, Euskaraldia amaitu eta hiru hilabetera. Igoera nabarmena, gainera, ezezagunen artean gertatu zen, %44ko erabilera-tik %77ra; hamaika eguneko ariketa amaitu eta hiru hilabetera, euskara erabiltzen jarraitu zutenak hiztun horien %53 ziren.

Baliteke aldaketa horren protagonista nagusiak Belarriprest rola aukeratu zuten hiztunak izatea. Izan ere, eskualdeko Belarriprestek %29tik %57ra igo zuten erabilera, Euskaraldiak iraun zuen bitartean.

Soziolinguistika Klusterrak xehatutako datuek hutsuneei begiratzeko aukera ere ematen dute, eta honakoa diote zenbakiek: euskararen erabilera apalea eskualdeko lantokietakoa dela. Horren harira, Mikel Ozaitak iradoki zuen, bigarren Euskaraldiko erronketako bat izango dela lan eremua euskalduntzea.

Finean, datu sorta horrek eta Galtzaundik antolatutako hitzaldiek ikuspegi errealistago bat eraikitzeke zubi izan nahi dute, Tolosaldeko herritarrentzat.

USTE BAINO GEHIAGO

Portzentaje eta zenbakietatik harago, iazko Euskaraldiak betaurrekoak jantzi zizkion hiztun askori, norbere hizkuntz jarrerak eta gainerakoenak aztertzeke.

Bide horretan, Galtzaundik azpimarratu du, bi txapa identi-

fikagarriek –Ahobiziarenak eta Belarriprestarenak– balio izan zutela hiztunak elkar elikatzeke: Ahobiziak bultzatu zituela euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz egitera, eta Belarriprestei piztu ziela beti euskaraz erantzuteko beharra.

Euskararen erabilera bi puntu igo zen Tolosaldean, Euskaraldia amaitu eta hiru hilabetera

Ikuspuntu berri horren jabe izanda, Euskaraldiko hainbat parte hartzaile jabetu dira, beren hizkuntz ohituren inguruan zuten idealizazioaz. Kontrara, beste askok ikusi dute, inguruan uste baino euskaldun gehiago ditzutela.

HITZALDIAK HERRIZ HERRI

Tolosa. Urriak 3, 18:30, kultur etxea.

Irura. Urriak 9, 18:30, gela borobila.

Zizurkil. Urriak 10, 19:30, Iriarte.

Amasa-Villabona. Urriak 16, 18:30, Mintzola.

Zizurkil. Urriak 17, 19:30, Plazida Otaño.

Leaburu-Txarama. Urriak 18, 18:00, balio anitzeko gela.

Anoeta. Urriak 19, 10:30, udaletxea.

Asteasu. Urriak 23, 19:00, udaletxea.

Altzo. Urriak 24, 19:00, Batzarre-muño.

Berastegi. Azaroak 22, 18:30, udaletxea.

Ibarra. Azaroak 28, 19:00, Txontx0.

Alegia. Abenduak 4, 19:00, kultur etxea.

Autobus ilaran

aurreratzea

BLOKEO bidez

galarazten baduzu,

Saskizalea zara.

Harpidetu zaitez JARRERA berrira.

Haurrak
47€ -tik

Gazteak
63€ -tik

Helduak
147€ -tik

Familiak
337€ -tik

Federatuak
47€

Gazte
Harmaila
40€

INFO GEHIAGO
@gipuzkoabasket
www.gipuzkoabasket.com

#JarreraBerria

Babesleak:





«Elkarrekiko igurtzi horretatik sortzen da elkartasuna»

UXUE ALBERDI
IDAZLE ETA BERTSOLARIA

Aiztondoko Plazida Otaño liburutegiko irakurle taldean izan da idazlea, 15 emakume bertsolariren bizipenak jasoz kaleratutako 'Kontrako eztarritik' liburuaz hitz egiteko

Jon Miranda Zizurkil

Bizitzan badu ipar bat Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984): «gozatu, gozatu eta gozatu, bestela ez dago eta bizirauterik». Gozamen iturri zaizkion bi jardunak uztartu ditu Lisipe bildumako liburuan.

Askotan aritu zara 'Kontrako eztarritik' liburuari buruz irakurtaldea?

Hau da aurrenekoa, egia esan. Gonbidapenak bat baino gehiago iritsi zaizkit, baina liburu atera-terako argi neukan ez nuela misiolari lanetan ibili nahi. Iruditzen zait luzea izan dela honetaz hitz egiteko konfiantza eraikitze-ko bidea. Orain ez nuen aritu nahi, behin eta berriro, ikuspegi hori esplikatzen eta pedagogia lana egiten. Liburu hori dago. Liburu-ko testigantzek gauza asko argitzen dituzte.

Martxoan kaleratu zenuen liburuak, ordutik dardara sumatu duzu bertso munduan?

Nire susmoa bazen liburu egite-ko, bazela zerbait unibertsala eta gure esperientzia partikularrek balio zezaketela beste emakume batzuei buruz hitz egiteko ere. Alde horretatik pozik nago. Bestetik bertso munduan, nik

uste, bere eragina izaten ari dela. Espero nuen gizonen partetik isiltasun handia eta hasieran horrela gertatu zen. Gero, tantaka-tantaka joan zaizkigu batzuk hurbiltzen eta irakurri dutela esaten. Badago beste parte handi bat, ordea, ezer gertatu ez balitz bezala dagoena. Hasieran banengoen horra begira, baina orain, alderdi positiboari begiratzen diot. Guretzat oso baliagarria izan da eta emakume askorentzat ere bai.

Bertso mugimenduan aspaldikoa da lanketa feminista?

Bai eta liburu hau bide horren emaitza da. Aurretik eraiki behar izan da konfiantza bat, konturatu behar izan dugu elkarren ispilu garena, bestearen bizipenak eta gureak diferenteak izan arren, leku beretik datozela. Deseraiki behar izan ditugu konpetentzia, elkarrekiko lehia eta inbidia, eta hori ez da erraza. Gauza hauek oso politikoak dira, nahiz eta oso pertsonaltzat dauzkagun askotan. Zortziko txiki baten aurrean, beste kideren batekin aritzen zarenean konturatzen zara, mekanismo asko, beldur asko eta tesuingurua konpartitzen dituzula eta elkarrekiko igurtzi horretatik sortzen dela elkartasuna.



MENDEA PASA DUTEN HERRITARRAK

Adineko pertsonen nazioarteko eguna zen atzokoa. Amasa-Villabonako Udalak herrian 100 urte bete dituzten herritarrak omendu nahi izan ditu. Muga-mugan dago Juana Arregi Zalakain, urriaren 12an egingo baititu 100 urte –argazkian, familiarekin eta udal ordezkariekin–. Beatriz Unzué alkateak eta Arantxa Lopez gizarte zerbitzu eta zinegotziak, maiatzaren 14an 100 urte bete zituen Dolores Mateos Iglesias eta abenduaren 24an 104 urte beteko dituen Maria Jesus Lopez Egiluz ere bisitatu zituzten atzo, euren etxetan. J.M.

Zikoina bat hilda agertu da Anoetako Ergoien auzoan

Eguzki talde ekologistaren ustez, istripu honek agerian uzten du goi-tentsioko kableek hegaztietan eragiten duten «triskantza»

Erredakzioa Anoeta

Irailaren 20an 50 bat zikoinek osatutako taldea pasa zen Anoetatik eta Eguzki elkarteak uste du talde horretako kidea dela hilda agertu den alea. Hegoen arten bi metro baino gehiagoko neurria duen amiamokoa da. Talde ekologistak aipatu duenez, zikoina hilda agertu zen irailaren 21ean Anoetako Ergoien auzoan, «zantzu guztien arabera, goi-tentsioko kable instalazioen kontra tal-ka egin ondoren».

Zikoina anilatuta zegoenez, Eguzki jakin ahal izan du Frantzia iparraldean, Somme departamenduko kostaldean zuela jatorria eta 2005ean anilatutako arra zela. «Informazio hau fiskaltzaren esku jarri dugu eta hala irizten badugu salaketa ere jarriko dugu», esan du talde ekologis- tak.

Iturri ezberdinak aipatuz,

Eguzki esan du estatuan urtean 33.000 eta 337.000 hegazti artean hiltzen direla goi-tentsio kableen eraginez, haiekin talka eginda edo deskarga elektrikoak jasota. Sareen jabe diren enpresa elektrikoek, orain arte eta gai honen inguruan, ez dutela ezer egin salatu dute ekologistek: «Iberdrolak gaur egun hitzarmen bat sinatua du Eusko Jaurlaritzarekin, kable sareak egokitzten joateko, baina hitzarmen honen abiada zein den ikusita, 28 urte baino lehen ez da sarea aldatzea lortuko. Horregatik diogu hitzarmena berandu datorrela eta eskasa dela».

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako administrazio ezberdinei, gai honetan interes gehiago eta beharrezko bitartekoak jartzea eskatzen diete eta Iberdrolari aldiz, «diru gehiago jartzea gai hau onbidatzeko». Herritarrei ezagut- zen dituzten kasuen berri ema-



Hildako hegaztiaren irudia. ATARIA

tea eskatzen diete, bai 112 zenbakira hots eginez edota nahiago badute, Eguzki talde ekologista- ra deituz, 688 66 25 32 telefono zenbakira. «Guk ezagutzen ditugun kasuak fiskaltzan ezagutze- ra emango ditugu eta jarraituko dugu egoera hau publikoki sala- tzen», aipatu du Eguzki.

Lizartzan kokatu du Agour enpresak hirugarren gaztandegia

Ossau-Iraty marka duen gazta egiteaz gain, Idiazabal gazta ere egingo dute; «bertako ekonomia sustatzea eta Tolosaldean enplegu jasagarria sortzea» da asmoa

Irati Saizar Artola Lizartza

Lizartzako Irunzubi industria-gunean aurki daiteke Agour enpresaren gaztandegi berria. Atzo goizean egin zuten irekiera ekitaldia, eta asmoen berri azaldu zuten gaztandegiko ordezkariak.

Ipar Euskal Herriko Heletan eta Iratin zituen Agourrek orain arteko bi gaztandegiak, eta hirugarren bat izango dute Lizartzan. Irekiera ekitaldian hainbat erakundetako ordezkariak elkartu ziren: Peio Etxeleku, Agour gaztandegiko presidentea, Jon Ander Torrea, Agour gaztandegiko zuzendari orokorra, Iñaki Azpiroz, Lizartzako alkatea, Jose Mari Ustarroz, Idiazabal Jatorri Izendapeneko lehendakaria, Xabier Arruti, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko zuzendaria, eta Bittor Oroz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak.

Gaztandegi berriak Tolosaldean izan lezakeen «inpaktu positiboaz» aritu ziren. «Gure gaztandegiaren irekierak enplegu berriak sortuko ditu, eta, orotara, hamabi lanpostu sortzea aurreikusten da lau urteko denboraldian. Horrez gain, hegoaldeko ardi esnea bertan hartuko dugu, beraz, Tolosaldearentzat onura sozioekonomikoak ekarriko ditu



Ekitaldiaren ostean, gaztak probatzeko aukera izan zuten. I. SAIZAR

gure gaztandegiak», zehaztu zuen enpresako lehendakariak.

Lizartzan, gainera, gazta mota berriak egiten hasiko dira. Orain arte Ossau-Irati izendapendun gazta soilik egiten zuten, eta irekiera honekin, Idiazabal gazta ekoizten hasiko dira. «Horrela, lehenak izango gara bi jatorri izendapeneko gaztak egiten; izan ere, esperimentazioa eta berrikuntzaren aldekoak gara; ho-

rren adibide, gazta urdina ekoizten ere hasiko gara», azaldu du Etxelekuk.

Gaztaz harago, urdaiazpikoak eta hestebeteak ere ekoizten dituzte, baita artisau azkenburukoak ere. Industriadun berean aurkitzen den Casa Eceiza ere Agour taldearen barnean dago. Euskal gastronomiaren «funtssezko produktuak» biltzen ditu Agourrek.



Ibarrako San Inazio auzoan aurkitzen da erretirodunen elkartea. ATARIA

Bizi Nahi-ko edaritegia, jabe berrien zain

Beste kudeatzaile bat aurkitu bitartean, itxita egongo da Bizi Nahi elkarteko edaritegia; berehala hasiko da esleipenekin Ibarrako Udala

I.S.A. Ibarra

Erretirodunen elkarte bat izateaz gain, edaritegi eta jatetxe zerbitzua eskaintzen duen lekua ere bada Bizi Nahi elkartea. Une hauetan, ordea, hori kudeatzen ari zenak utzi egin du, eta beste bat aurkitu artean itxita egongo da taberna eta jatetxe zerbitzua.

Ibarrako Udalak aurreratu duenez, datozen asteetan aterako dute lehiaketara lokala. «Tramiteak luzeak izaten dira eta

oraindik ezin dugu deialdia egin; hala ere, zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartzeko interesa dutenek proiektua prestatzen has daitezela nahi dugu», azaldu dute. «Azpiegitura egokiak ditu bai edaritegiak eta baita jatetxeak ere, eta zerbitzuari ekiteko aukera oso onak eskaintzen dituen gune eta testuingurua ditu», gaineratu dute.

Beraz, interesa dutenek informazioa eskuratzeko aukera izango dute udal bulegoetan.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

TAKE saskibaloia klubeko bi talde nagusiek, emakumezkoenak eta gizonezkoenak, laster hasiko dute liga txapelketa. Gizonezkoek asteburu honetan dute Ordiziaren aurka lehen partida, etxetik kanpo. Emakumezkoek, berriz, urriaren 19an hasiko dute lehia, etxean, Eskoriatzaren aurkako partidarekin.

Taldeko dinamika «onari» eustea

Imanol Garcia Landa Tolosa

Asteburu honetan hasiko du liga TAKE saskibaloia klubeko mutilen lehen taldeak, Redline Mekanika TAKEk, hain justu. Ordizia izango dute aurkari, larunbatean, 18:00etan, etxetik kanpo. Mailaz jaitsi berri den taldea da Ordizia. «Zaila da jakiten zer gertatu daitekeen. Guk, joko aldetik, nahiko ondo ikusten dugu gure burua, baina beraiek jokalaria gehienak mantendu dituzte aurreko denboralditik. Beraz, nahiko partida zaila tokatzen zaigu», esan du Jon Azaldegi entrenatzaileak.

Aurreko denboraldia lehenengo izan zen Azaldegiarentzat entrenatzaile moduan. «Orokorrean zapore gozoa izan zuen. Pena izan zen igoera faserako ez sailkatzea, azken unera arte aukerak izan baikenituen. Baina kontuan hartuta denboraldi hasierako helburua ez zela hori, bai jokalariai eta bai ni neu gustura gelditu ginen egindako lanarekin», esan du. Bere lehen urteko bizi-

penei dagokionez, «entrenatzaile gazte gehienek izango duten sentsazio antzekoa neukan, hau da, oraindik asko dudala ikasteko, batez ere partiden kudeaketan», azaldu du. «Gaur egun ere berdin jarraitzen dut pentsatzen, eta nolabaiteko gabezi horiek konpentsatzeko astean zehar egin behar dugu lana, gauzak oso argi eramateko partidara». Taldeko dinamika «oso ona» izan zela gaineratu du eta aurreko ere horrela izaten ari dela: «Ondo entrenatzen ari gara, eta hori emaitza onak lortzeko bidean oso garrantzitsua da».

Taldean zenbait aldaketa izan dira. Kaiet Bidaurretak ez du jarraituko, entrenatzen ariko bada ere. Bestetik, junior taldetik Patxi Maiza eta Julen Balerdi igo dira. Horrez gain, Eukene Huici juniorrak lehen taldearen dinamikan parte hartuko duela azaldu du Azaldegik, eta Bidaurretaren baja nabarmendu du: «Kaitek ematen zuena partidetan jokalaria gutxi eman dezakete, batez ere defentsa lanetan. Alda-



Redline Mekanika TAKE taldeko kideak. ATARIA

keta batzuk egin beharko ditugu bere hutsunea ez nabaritzeko».

Denboraldirako helburua «ligako talde guztien aurka lehiatzeko» eta «onenen aurka partidak irabazteko» gai izatea dela azaldu du entrenatzaileak. «Aurreko urtean falta izan zitzaigun erasoan aukera gehiago sortzea, eta puntu gehiago sartzea goiko taldeen aurka lehiatzeko, eta

aurreko alde horretatik hobetzen saiatuko gara. Azkenean, joko ona egitea eta horri esker emaitza onak lortzea da helburua». Azaldegi gustura dago lagunartekoetan ondo lehiatzeko gai direla erakutsi dutelako: «Pozik gaude dinamika ona izan dugulako, jokalaria guztiak lanerako prest daudelako, eta lesiorik ez dugulako izan».

PARTAIDEAK

Lander Lasa. Tolosa, 1988. Hegalekoa.
Beñat Azaldegi. Tolosa, 1994. Hegal pibota.
Patxi Maiza. Tolosa, 2001. Hegalekoa.
Julen Balerdi. Tolosa, 2001. Antolatzailea.
Josu Lertxundi. Tolosa, 1999. Antolatzailea.
Ion Izaguirre. Tolosa, 1987. Pibota.
Eukene Huici. Tolosa, 2002. Hegalekoa.
Miguel Cruz. Tolosa, 1994. Hegalekoa.
Ekain Conde. Tolosa, 2000. Antolatzailea.
Julen Zabala. Tolosa, 2001. Hegalekoa.
Iñigo Moreno. Ibarra, 1995. Pibota.
Iker Garmendia. Tolosa, 1993. Hegal pibota.
Hasier Etxabarri. Tolosa, 1996. Entrenatzaile taldekoa.
Mikel Lakunza. Tolosa, 1999. Entrenatzaile taldekoa.
Jon Azaldegi. Tolosa, 1991. Entrenatzaile taldekoa.

Ziklo berri bati hasiera emango diote

I. Garcia Landa Tolosa

Denboraldi berezia izango da aurtengoa TAKEko emakumezkoen lehen taldearentzat, batez ere Iñigo Irurtzunentzat, lehen entrenatzaile moduan estreinatuko baita. «Aurreko denboraldian bigarren entrenatzaile bezala aritu nintzen, eta, orain, lehen entrenatzaile bezala, ilusio eta gogo handia dut. Eta, erronka handia dela jakinik, ea nola goazen ardura hori betetzen», esan du Irurtzunek.

Alain Rekondo izan da aurreko urteetan lehen entrenatzaile, eta bere zikloa amaitu ondoren, Irurtzuni proposatu zioten taldearen gidaritza eramatea. «Ilusioz hartu nuen proposamena. Ikargarrizko erronka iruditzen zait, eta esan behar dut errazago hartu nuela erabakia bigarren entrenatzaile bezala izango dudan Jon Ander Zabalaren laguntza jasotzeko aukera izatean».

Aurreko urteetan egindako joko estiloari jarraipena emango



TAKEko emakumezkoen talde nagusiko kideak. ATARIA

diote. «Horretan ez dugu aldatu. Bai nabarmendu nahi izan dugu jarrera edo kontzeptu aldaketa. Gure ardura izanik taldea aurrera eramatea, ziklo berri baten hasiera denez eta gu berriak izanik, jokalarien inplikazioa nolabait handitze aldera, eskatu diegu beraiek ere taldea aurrera eramateko ardura hori hartzea».

Irurtzunek gaineratu duenez, «nahiz eta entrenatzaileak aldatu, jokalariai dira taldea egiten dutenak, eta garrantzitsua da aurreko izango den egokitzapen prozesu honetan jokalariek jarrera positiboa izatea taldea aurrera eramateko. Orain arte hori ikusten da».

Urriaren 19an hasiko dute liga,

etxean, 18:00etan, Eskoriatzaren aurka. «Irrikaz gaude hasteko, eta pixka bat luzea egiten ari zaigu aurre-denboraldia, beste urteetan lehenago hasi baita liga», esan du entrenatzaileak. «Nolabait badugu gure burua frogatzeko gogo eta ikusteko beste taldeekiko nola gauden».

Taldean baja bat izan dute, Miriam Fernandezena. Altei dagokionez, aurretik taldean aritutako Lore Lakuntza itzuli da, eta jubenilen taldetik Olaia Franco igo da. «TAKERen filosofia da aukerak ematea etxeko jendeari eta aurreko ere lana egingo dugu jubeniletan jokatzeko ari direnekin», esan du Irurtzunek.

Aurreko denboraldia zortzigarren amaitu zuen taldeak. Aurreko igoera fasea lehenengo laurak jokatu dute, eta azken biak zuzenean jaitsiko dira. Helburu moduan «lehiatzea» eta sailkapenean ahal duten postu gorenean bukatzea jarri dute. «Lehiakortasuna ere entrenamenduetan azalerazi beharko dugu, gero

PARTAIDEAK

Marta Mendinueta. Tolosa, 1994. Hegalekoa.
Kris Amondarain. Tolosa, 1996. Hegalekoa.
Aia Garcia. Tolosa, 1998. Hegalekoa.
Iratxe Alda. Tolosa, 1997. Pibota.
Nerea Ugartemendia. Tolosa, 1995. Hegalekoa.
Olaia Franco. Tolosa, 2001. Pibota.
Nerea Elosegui. Tolosa, 1996. Hegalekoa.
Maddi Lakunza. Tolosa, 1993. Antolatzailea.
Lore Lakunza. Tolosa, 1997. Antolatzailea.
Ainhoa Lakunza. Tolosa, 1998. Antolatzailea.
Leyre Jauregui. Tolosa, 1999. Pibota.
Iñigo Irurtzun. Tolosa, 1995. Entrenatzailea.
Jon Ander Zabala. Tolosa, 2000. Entrenatzailea.

denboraldi osoan zehar kantxan lehiakortasun izateko erronkari aurre egiteko», dio entrenatzaileak.



ASTEAZKENA, 2019KO URRIAK 2
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaledea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

ASTEAZKENA 02

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Tailerra alzheimer gaixoen autonomiaz, Inmakulada ikastetxean, 16:00etan. Alzheimerreko edo beste demenziaren bat duen pertsonen autonomia sustatzeko gakoak eskainiko dituzte.

Tolosa. Amatasun arriskutsua Antxon Bandres Bidaiarien Txokoan, 20:00etan. Justina Aguerre, ginekologo eta kooperantea, lurralde ezberdinetako amatasun zerbitzuetan lanean ibili da azken urteetan.

Erakusketak

Tolosa. Itzalak izar azpian erakusketak, GKO Galleryn. Artista, Riaz Miuq. 17:00etatik 20:30era dago ikusgai.

Tolosa. Oihana Ugarteren grabatuak, 3 tabernan.

Tolosa. SAM enpresaren mendeurrenaren harira, erakusketak jarri dute Aranburu jauregian. Enpresaren historia partekatu nahi dute herriarekin eta tolosar guztiekin, zuzenean nahiz zeharka, askok lotura izan baitzuten lantegiarekin. 17:30etik 20:30era.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, eskualdeko alkateei elkarrizketa (gaurkoan, Josu Ozaita Ballarraingo alkatea), Xabier Zeberio Alos Quartet taldeko musikariari elkarrizketa eta Tolosaldea Garatzenen tartea.

11:00. Desafioa. Herri kirolen inguruko saioa Joxe Angel Sarasolarekin, Asier Imazek gidatuta.

12:00. Entzuteko jaiak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa Imanol Artola Felix-ek gidatuta.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. Ur eta lur

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa (Zumarraga)

22:30. Zer jan

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mugika Martinez. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Ipar mendebaldeko haizea nagusituko da egun guztian zehar eta horren ondorioz, itsasotik hodei dezente sartuko zaizkigu. Hodei horiek, batez ere egunaren lehenabiziko zatian eta arratsaldearen hasieran euri dezente utziko dute. Zaparrada mardulak botako ditu eta litro dezente pilatuko zaizkigu egunaren lehenabiziko zatian. Arratsalde erditik aurrera nabarmen atertzeko joera hartuko du eta eguna bukatzerako ateri geratuko da. Tenperaturek koska polita egingo dute behera, atzokoarekin alderatuz, eta eguneko erdiko orduetan 17-19 graduetatik pasatzea kosta egingo zaie.



Bihar. Bestelako giroa izango dugu, eta eguraldi eguzkitsua bueltan izango dugu. Goiz partetik hego ukituko haizea izango dugu eta horrekin tenperaturek gora egingo dute, 20-22 gradutara iritsiz. Zeruari dagokionez, berriz, goiz partean argiago agertuko zaigu, eta badirudi eguerditik aurrera goi hodei gehiago agertuko zaizkigula. Arratsalde erditik aurrera haizeak ipar ukitu bat hartuko du eta hodei baxu batzuk agertuko zaizkigu. Hala ere, ez dute bestelako ondorioz ekarriko eta eguraldi eguzkitsua izango dugu. Etzikoari begira jarritik, eguraldi epela izango dugun arren, badirudi egoera nahastu egingo zaigula.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Atzo egin zuten Hazinnova zerbitzuaren aurkezpena, Lehiberri zentroan. ASIER IMAZ

Berrikuntzaren bidetik haztea xede

Hazinnova aholkularitza zerbitzua aurkeztu dute Lehiberrin; enpresa txiki eta ertainei lana antolatzen eta produktu eta zerbitzuak merkaturatzen lagunduko du

Asier Imaz

Enpresa txiki eta ertainentzat (ETE) Hazinnova aholkularitza zerbitzua aurkeztu zuten atzo Lehiberri zentroan. «Lana antolatzen edo enpresako produktu eta zerbitzuak merkaturatzeko modu berriak ezartzeko laguntza» dela azaldu dute bultzatzaileek.

Hazinnova doako aholkularitza zerbitzua da, enpresa txiki eta ertainentzat. Innobasque, Spri eta Eusko Jaurlaritzaren ekimena eskualdez eskualde aurkeztu ari dira. Irailaren 19an Durangon abiatu ziren, eta atzo-

koan, bigarren aurkezpen ekitaldia egin zuten Lehiberrin. Tolosaldeko aurkezpena Tolosaldea Garatzenen eskutik etorri da, besteak beste, eskualdeko ETEei laguntzeko asmoz. Hain justu, Tolosaldea Garatzen Hazinnova agentea dela azaldu zuten atzo, hau da, zerbitzua ingurunean enpresei ezagutzera emateaz arduratu eta bitartekari lanez arduratuko da.

Aholkulari zerbitzuaren oinarrian berrikuntza egongo da. Hazinnova 6 eta 99 langile bitarteko enpresei zuzentzen zaie. Aholkulariak enpresa bakoitzaren egoera banan-ban aztertuta, lana

antolatzen edo produktu nahiz zerbitzuak merkaturatzeko bide berriak ezartzeko estrategia-ildoak finkatu eta horretarako beharrezkoa den izapide administratibo oro burutuko du. «Hori guztia dohainik izango da, gainera», nabarmendu dute.

Hazinnova 2,5 milioi euroz hornituta dagoela azaldu dute aurkezpen ekitaldian. Spri Taldeak eta Innobasquek aurreikusten dutenaren arabera, 2.400 enpresa txiki eta ertainetara iritsi nahi dute, eta enpresa bakoitzak urtean bi mikro-proiektu abiatu ahalko dituela ere aurreikusi dute.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus • 107.6 fm • 105.0 fm